

Psametiko faraoia lehen hizkuntzaren bila



Psametiko I.a Ra jainkoari eskaintza egiten, faraoiaren hilobiko erliebe batean (Tebas).

haurrek zentzurik gabeko soinuak egin ohi dituzten garaia gaudituta, Psametikoren bi giza akuriek esaten zituzten lehen hitzak gizakien jatorrizko hizkuntzarenak izango ziren. Ondorioz, hizkuntza horren hiztunak lehen gizakien ondorengo zuzenak izango ziren.

Esperimentuak bi urte bete zitueanean, artzainak faraoiarekin biltzeko baimena eskatu zuen. Haurrek lehen hitzak esan zituzten, eskuak luzatzeaz bat, zerbait eskatzen ariko balira bezala: *bekós, bekós*.

Ez artzainak, ez faraoiak, ez zekiten hitz horrek zer esan nahi zuen, agintariak jakintsuen batzordea bilduarazi zuen, hitzaren jatorria eta esanahia aurkitzeko. Hainbat egunean eztabaidan aritu ondoren, zera ondorioztatu zuten: hitza frigierazkoa omen zen eta “ogia” esan nahi omen zuen. Frigiarrek ia Anatolia osoa –egungo Turkia– hartzen zuten garai hartan.

Beraz, faraoia oker zegoen, egiptoarrak ez ziren lehen gizakiak (eta artzainak ez zituen bi haurrak ondo elikatu, jakintsuen batzordea zuzen egonez gero, behintzat).

Batetik, bistan da Psametikoren esperimentuak ez zuela inolako oinarri zientifikorik, ez eta zentzu handirik ere, gaurko hizkuntzalaritzak erakusten diguna aintzat hartuz gero. Alegia, hizkuntza guztiak antzinatasun bera dutela, eta guztiak dutela jatorria ari berean.

Hala ere, Psametiko ez zebilen gizakiaren jatorria zein den asmatetik oso urrun; orain arteko *Homo Sapiens* arrasto zaharrenak Etiopian aurkitu zituzten arkeologoek, egiptoarren zibilizazioaren oinarri izan zen Nilo ibaiaren iturburuetako batetik hurbil. ■



Arrastoak

Siriako gatazkaren beste albo kalteak

Siriako gatazkaren ondorio larrienak giza galerak dira, baina kultura eta historia ondorean ere kalte handiak ere eragin dituzte, eta eragiten ari dira, azken urteko bonbardaketek eta erasoek. Gune kalte-tuen artean hauek daude: greziar eta erromatar garaiko Apamea hiria, Palmira, Damaskoko Midan auzoko zoko zaharra, Aleppoko gaztelua... Baita beheko irudietan ageri diren guneak ere. ■



Goitik behera, Bosrako erromatar garaiko etxeak, Homseko Bab al-Turkman auzo zaharreko kalea eta hiri bereko Umm Al-Zinar eliza ortodoxoa, bonbardaketen ondoren.